

Gasteizko haur eskoletarako eredua aurki aurkezteko asmoa du PPK

Encina Serranok «frontismoa» egitea eta «urduri» egotea egotzi dio oposizioari

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

Encina Serrano Gasteizko Hezkuntza, Kultura eta Kirol zinegotziak iragarri du PPK «laster batean» aurkeztuko duela haur eskoletarako hizkuntz eredua, eta, beraz, datorren ikasturtean abian jarri nahi duela baieztatu du. Halaber, «frontismoa» egitea eta «urduritasuna» erakustea egotzi dio popularren planen aurka-ko ekimenari.

ENCINA SERRANO zinegotzi popularrak EUSKALDUNON EGUNKARIARI atzo eguerdian adierazi zionez, «ideiarik ere» ez du azken asteotan bilduz joan den oposizio mugimendu zabalaz: «Batere berririk ez dut omen datorren frontismo horri buruz».

Hedabide honek atzo argitaratu zuen Arabako hamai-ka alderdi, sindikatu eta herri taldek adostasuna lortu dutela PPK herrialdean indarrean ezarri nahi duen hizkuntz politika salatzeke. Agiri bateratua egin dute, eta elkarrekin ariko dira mobilizazio batean.

PPko zinegotziak, ordea, ezer ez daki. «Guk batzordean baino ez genuen aipatu», gehitu zuen iragan irailean planteatutako eredu bakarra gogoan, «eta, beraz, ez dut uste horrelako aurkezpenak



Encina Serrano, Gasteizko Udaleko Hezkuntza, Kultura eta Kirol zinegotzia.

horrenbeste iskanbila merezi duenik».

Serranok dio ez duela uler-tzen hainbesteko «urduritasuna» inork ez baldin badaki PPK zer proposamen egingo duen. Hori bai, aurki ezagutaraziko dutela baieztatu zuen, «datorren ikasturterako aurre-matrikulazio epeak hortxe gertu daude eta». Izan ere, popularrek otsailaren aurretik eredu berria zehaztu beharra dute 2000-2001

ikasturtean indarrean ezarri nahi izanez gero.

Bestalde, gaiari buruzko adierazpen zehatzik egin nahi ez duela agerian utziz, uko egin zion argibiderik eskain-tzeari PPren proposamenaren edukiaz. Noiz kaleratuko den ere ez dakiela esan zuen, baina, dena den, asteon ez dela izango ziurtatu zuen. Nolanahi ere, komunikazio ofizial batez egingo dela jakinarazi zuen.

Gurasoen «kezka» azalduko da gaur

Bien bitartean, popularren asmoek hainbat gizatalderen kezka sakonak eragiten jarraitzen dute. Ildo horretan, gaur eguerdian guraso talde batek bere «kezka» agertu behar du publikoki prentsaurreko baten bitartez «Gasteizko Udalak Haur Eskoletarako planteatu nahi duen hizkuntz eredua» dela medio.

Asteazken gauean gizon gazte bat hil zen Irunen liskar baten ondoren

Ordu batzuen buruan bi lagun atxilotu zituzten ustez hilketan zerikusia izan zutelako

Erredakzioa / Donostia

LISKAR bat jazo zen asteazken gauean Irungo Serapio Mujika kalean. Antza, hainbat lagunek tirabirak izan zituzten eta labanak erabili zituzten elkarri erasotzeko.

Eraso horien ondorioz, J.R.H.J. gizaseme gazteak zauri larriak egin zituen bularraren parean, eta Bidasoako erietxera eraman behar izan zuten. Han ezin izan zuten ezer ere egin hura salbatzeko, ordea, eta berehala hil zen.

Bi lagun atxiloturik

Ordu batzuen buruan, ertzainek bi lagun atxilotu zituzten, Irunen bertan: D.P.H. eta J.P.H., 23 eta 24 urteko anaiak, ustez gizaseme gaztearen hilketan zerikusia izan baitzuten.

Itxura denez, ijito fami-lietako kideak dira asteazkeneko liskarrean ibili ziren guztiak, eta beren arteko iskanbilaren baten ondorioz jazo zen guztia. Atzo ertzainek ez zuten liskarraren zergatia zein izan zen argitu, baina jazoeraren gaineko hainbat nondik norako ikertzen ari dira.

Farmazia alorreko euskarazko lehen liburu teknikoa kalean da dagoeneko

Farmazialari Euskaldunen Elkarteak metadonari buruzko lana landu du

Gorane Agirre/ Bilbo

FARMAZIALARI Euskaldunen Elkarteak (FEUSE) farmazia esparruko euskarazko lehenbiziko liburu teknikoa plazaratu du. *Farmazietan metadonazko mantentze Programa-Bizkaian lortutako emaitzak* izenburuko argitalpena Loidi Bildumaren aurreneko alea da; Jose Antonio Loidi farmazialari, idazle eta euskaltzain zena-ren omenezko bildumako aurreneko alea, alegia.

Patxi Arrasate FEUSEko ordezkariak azaldu zuenez, elkartearen helburu nagusia farmazia alorrean euskara-

ren erabilpena bultzatzea da, horretarako hizkuntza teknikoa jorratuz eta zabalduz. Elkarteak dagoeneko 175 bazkide ditu Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan.

Atzo aurkeztu zuten liburua, esan legez, Loidi Bildumaren lehenbiziko alea da, eta aurrerantzean urtero bat kaleratzeko asmoa du elkartek. Bilduma horrekin, Jose Antonio Loidi zenak euskara eta farmaziaren alde egin zuen lan oparoa goraiatu nahi izan dute, Pello Iturria Elkartearen lehendakariak azaldu zuenez.

FEUSEk liburu horren 750 ale kaleratu ditu, eta, beste-

ak beste, elkarteko kideen eta erakundeen artean banatuko dituzte. Lana osatu ahal izateko, FEUSEk Bizkaiko Farmazialarien Elkargoaren laguntza izan du.

Argitalpen teknikoen alorreko ahaleginez gain, FEUSE eratzten duten hiru batzordeek —dispentsazioa, medikamenduen mantentzea eta botikagintza— barne txostenak kaleratzen dituzte hilero. Lanok hemen aurki daitezke: www.jalgi.com/feuse webgunean.

FEUSEk Hego Euskal Herriko farmazialarien elkar-goekin harremanak sendotzeko asmoa dauka. Izan ere,



Patxi Arrasate eta Pello Iturria, atzoko prentsurrekoan.

Arrasatek azaldu zuenez, «FEUSEk apustu garbia egin du herritarrentzako laguntza farmazeutikoa eta osasun alorreko beste espa-

rruetan euskaraz aritzearen alde, herritarrek eskubide osoa baitute farmazialariarekin ere beren hizkuntzan berba egiteko».